



## EBAZPENA – RESOLUCIÓN

Donostia, 2014ko maiatzaren 2a  
San Sebastián, a 2 de mayo de 2014

### 1.- Aurrekariak

2014ko otsailaren 10ean, Astigarragako Udalak kontsulta bat bidali zuen Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzara, HEA 12 Mendaundi-Anibar eremuan herri baratzeak jartzeko plan bereziari ingurumen ebaluazio estrategikoko procedura egin behar ote zaion jakiteko. Idatzi horri atxikita kontsultadokumentu bat zegoen, non urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, planen eta programen ingurumenaren gaineko inpaktuaren ebaluazio estrategikoa egiteko procedura arautzen duenak, 5. artikuluan xedatutako atalak zehaztuta ageri ziren.

211/2012 Dekretuko 4. artikuluak, otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrak, I A eranskinetako 8. atalean xedatutakoaren inguruan, adierazten du lege edo araudi-xedapeneak hala eskatuta, administrazio publiko batek osatutako edo onartutako plan eta programek, betiere nekazaritzarekin edo hiri zein landa-lurralde antolaketarekin zein lurzorua erabilerarekin zerikusia badute, ingurumen-ebaluazio estrategikoa jaso beharko dutela, baldin eta ingurumenean inpaktu nabarmenak izan ditzakeela ondorioztatzen duten kasu hauetako bat ematen bada: a) Ingurumenaren gaineko inpaktuaren ebaluazioa egiteko beharrezkoa izango den baimenaren ingurua ezartzen duten plan eta programek hori xedatzen badute; b) zuzenean edo zeharka Natura 2000 Sareko guneei eragin badiezaiekete eta c) Ondare naturalari eta biodibertsitateari buruzko oinarrizko lejeria edo Euskal Autonomia Erkidegoko natura zaintzeko lejeria aplikatuz emandako arau-xedapen orokorreko edo nazioarteko hitzarmenek eragindako ingurumenbabeserako erregimenen bat duten eremueta eragiten dutenean.

Halaber, 3/1998 Legeko I A Eranskinetako 9. atalean xedatutako lurralte-esparru murritzuko eremuen erabilera zehazten duten planen eta programen barne kokatu daiteke plan berezi hori. Atal horrek eta 211/2012 Dekretuko 5. artikuluak xedatutakoaren arabera, horrelako plan-motek ingurumen-ebaluazio estrategikoa jaso beharko dute, Ingurumen-organoak hartutako erabaki arrazoitu eta publiko bidez, betiere 211/2012 Dekretuko III. Eranskinetako irizpideak aplikatu ondoren, ingurumenean inpaktu nabarmenak izan ditzaketela ondorioztatzen bada.

### 1.- Antecedentes

Con fecha 10 de febrero de 2014, el ayuntamiento de Astigarraga remitió una consulta a la Dirección de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas para saber si el plan especial para la implantación de huertas de ocio en la AIU 12 Mendaundi-Anibar debe ser sometida al procedimiento de evaluación ambiental estratégica. El escrito remitido estaba acompañado de un documento de consulta, que contiene los apartados especificados en el artículo 5 del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 4 del Decreto 211/2012 en relación con el apartado 8 del anexo I A de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del medio ambiente del País Vasco, los planes y programas elaborados o aprobados por una administración pública debido a exigencias emanadas de disposiciones legales o reglamentarias y que, como el presente, tengan relación con materias como la agricultura o la ordenación del territorio urbano y rural o del uso del suelo, están sujetos al procedimiento de evaluación ambiental estratégica, siempre que se den alguno de los siguientes supuestos que permitan inferir la existencia efectos significativos sobre el medio ambiente: a) cuando establezcan el marco para la futura autorización de proyectos legalmente sujetos a evaluación de impacto ambiental b) cuando puedan afectar directa o indirectamente de forma apreciable a un espacio de la Red Natura 2000, y c) cuando afecten a espacios con algún régimen de protección ambiental derivado de convenios internacionales o disposiciones normativas de carácter general dictadas en aplicación de la legislación básica sobre patrimonio natural y biodiversidad o de la legislación sobre conservación de la naturaleza de la CAPV.

Asimismo, este plan especial podría enclavarse entre los denominados planes y programas que establecen el uso de zonas de reducido ámbito territorial recogidas en el apartado 9 del anexo I A de la Ley 3/1998. En ese apartado y en el artículo 5 del Decreto 211/2012, se estipula que, se someterán a evaluación ambiental estratégica este tipo de planes, por decisión motivada y pública del órgano ambiental, siempre que éste determine que pueden tener efectos significativos sobre el medio ambiente tras la aplicación de los criterios que se recogen en el anexo III del Decreto 211/2012.



Ondorioz, 211/2012 Dekretuko 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaZen honen bidez, ingurumen-organoak argumentatu eta erabakiko du plan berezi honek inpaktu nabarmenak izan ditzakeen ingurumenean, betiere 3/1998 Legeko I A eranskinean xedatutako kasuen eta aipatutako dekretuko III Eranskinean xedatutako irizpideen arabera. Beraz, plan berezi horri ingurumen-ebaluazio estrategikoa egitea beharrezkoa ote den ala ez xedatuko du.

Ildo horretan, 211/2012 Dekretuak 5. artikuluan xedatzen du, erabaki hori hartu baino lehen, erasandako administrazio publikoei kontsulta egin behar zaiela.

## **2.- Konsulta erasandako Administrazio, pertsona eta erakundeei**

Planaren ezaugarriei eta erasandako lurrarde-esparruari buruzko informazioa oinarriztat hartuta, Ingurumen eta Obra Hidraulikoen Zuzendaritza Nagusi honek jarraian ageri diren administrazio eta erakunde hauek erasandako erakunde interesatutzat jo dituzte, eta beraz, kontsulta egin die, eta organo sustatzaileak idatzitako ingurumen kontsulta-dokumentua bidali die:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiari.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusiari.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusiari.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiari.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzari.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzari.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzari.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdei Aurregiteko eta Meteorologia Zuzendaritzari.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Departamentuko Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritzari.
- IHOBeri.
- Behemendiri.
- San Marko mankomunitateari.
- Añarbe ibaiaren urtegiko ureni mankomunitateari.
- Eguzki talde ekologistari.
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa talde ekologistari.
- Aranzadi Zientzia Elkarteari.
- ENBA (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) erakundeari.
- EHNE (Euskal Nekazarien Batasuna) erakundeari.

En consecuencia, y siguiendo lo establecido en el artículo 5 del Decreto 211/2012, mediante la presente resolución este órgano ambiental argumentará y decidirá si este plan especial produce efectos significativos sobre el medio ambiente en base, tanto a los supuestos recogidos en anexo I A de la Ley 3/1998, como a los criterios establecidos en el anexo III del citado decreto, y, por tanto, se pronunciará sobre la necesidad de someter o no el plan especial al procedimiento de evaluación ambiental estratégica. En este sentido, el Decreto 211/2012 establece en el artículo 5, que, previamente a dicho pronunciamiento, se consultará a las administraciones públicas afectadas.

## **2.- Consulta a Administraciones, personas e instituciones afectadas**

Basándose en la información respecto a las características del plan y el ámbito territorial afectado, esta Dirección General de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas ha identificado como interesadas y ha consultado a las siguientes administraciones y organizaciones, a las que remitió el documento ambiental para consultas redactado por el órgano promotor:

- Dirección de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa (DFG).
- Dirección de Montes y Medio Natural de la DFG.
- Dirección de Ordenación del Territorio de la DFG.
- Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural de la DFG.
- Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.
- Dirección de Medio Natural y Planificación Ambiental del Gobierno Vasco.
- Dirección de Administración Ambiental del Gobierno Vasco.
- Dirección de atención de emergencias y meteorología del Gobierno Vasco.
- Dirección Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.
- IHOB.
- Behemendi.
- Mancomunidad de San Marcos
- Mancomunidad de aguas del embalse del río Añarbe
- Grupo ecologista Eguzki.
- Grupo ecologista Ekologistak Martxan Gipuzkoa.
- Sociedad de Ciencias Aranzadi.
- ENBA (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).
- EHNE (Euskal Nekazarien Batasuna).



Halaber, ingurumen-dokumentu hori Ingurumen eta Obra Hidraulikoen Zuzendaritza Nagusiaren webgunean jakinarazi da eta bertan ikusgai zein konsultagarri egon da publikoarentzat oro har, edozein interesatuk, nahi izanez gero, egokitzat jo zitzakeen ingurumen esparruko ekarpenak egiteko.

Erantzunak bidaltzeko epea amaituta, Eusk Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurrald Zuzendaritzaren txostena jaso da. Bertan adierazten d hiriko baratza horiek instalatzek komunitateare osasunari laguntzen diola. Halaber, irizten da pla bereziak ez duela ingurumeneko ebaluazi estrategikoko prozedura jarraitu behar.

Erantzunen bat jasoko balitz ebaZen hau ema ondoren, Astigarragako Udalera igorriko litzatek lehenbailehen, proiektua idazterakoan kontuan hartu izan dadin

### **3.- Plan bereziaren deskribapena**

Plan bereziaren eremua HEA 12 Mendaundi-Anibar eremuaren barne dago, programatu gabeko lurzor urbanizagarri gisa sailkatutako eremuan. Hala ere, gaur egun, udalak Hiri Antolaketako Plan Orokorra aldatzeko expedientea jarri du abian, eta HEA 12 eremuaren zati bat dago horren barne programatuta. Gainera, zati hori lurzoru hiritarrekin gisa sailkatzen da, eta plan bereziak erasandako 2.400 m<sup>2</sup> inguru herri-baratzeak egiteko ezartzen dira.

Oro har, plan berezi horren helburu nagusiak honako hauek dira:

- Ingurumenari buruzko ezagutza bultzatzea eta ingurumenarekiko errespetua areagotzea.
- Lurzoruaren funtzio naturalak mantentzea.
- Landa-esparruen eta esparru naturalen balioa sustatzea, baita herritarrek lurzoru horiei esker gozatzea ere, betiere Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian proposatutako neurrien arabera.
- Nekazaritza ekologikoa sustatzea natura errespetatzen duen ekoizpen-modu gisa, eta kontsumitzaleen osasuna hobetzeko modu gisa, besteak beste.
- Laborantzarako ingurumen-jardunbide egokiak sustatzea: hondakinen kudeaketa, ur-aurrezpena, nekazaritza ekologikoa, eta usadiozko nekazaritzako erabilera eta ohiturak erreuperatzea.
- Elikadura osasuntsua eta bizitza-ohitura osasuntsuagoak sustatzea.
- Ingurune naturalaren eta giza jardueren arteko harremanak ezarri eta baloratzea.

Asimismo, ha estado accesible dicho documento ambiental en el portal de Internet de la Dirección General de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas [www.gipuzkoaingurumena.net](http://www.gipuzkoaingurumena.net) para que el público en general y cualquier interesado pudiera realizar las aportaciones de carácter ambiental que considere oportunas.

Finalizado el plazo otorgado para la remisión de respuestas, se ha recibido informe de la Dirección Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud de Gobierno Vasco. En el mismo, se informa que la instalación de estos huertos urbanos favorece a la salud de la comunidad. Asimismo, se considera que no es necesario que este plan especial sea sometido a procedimiento de evaluación ambiental estratégica.

En caso de recibirse alguna respuesta posterior a la emisión de esta resolución, ésta será remitida al ayuntamiento de Astigarraga en el plazo más breve posible, a fin de que sea tenida en cuenta en la redacción del proyecto

### **3.- Descripción del plan especial**

El ámbito del plan especial estaba incluido en la AIU 12 Mendaundi-Anibar, área clasificada como suelo urbanizable no programado. Sin embargo, en la actualidad, el ayuntamiento ha impulsado un expediente de modificación del PGOU en el que se programa parte del AIU 12 y, además, clasifica, como suelo no urbanizable, y la destina a huertas de ocio, la parcela de aproximadamente 2.400 m<sup>2</sup> afectada por el presente plan especial.

Los objetivos principales del plan especial pueden resumirse en los siguientes:

- Impulsar un mayor conocimiento y respeto por el medio ambiente.
- Mantener las funciones naturales del suelo.
- Promover la puesta en valor del espacio rural y natural, así como el disfrute local de los beneficios derivados; de forma acorde con las medidas propuestas en la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible.
- Potenciar la agricultura ecológica como producción respetuosa con la naturaleza y mejora de la salud de los consumidores, entre otros.
- Promover buenas prácticas ambientales de cultivo: gestión de los residuos, ahorro de agua, agricultura ecológica, recuperación de usos y costumbres de la agricultura tradicional.
- Promover una alimentación sana y cambios de hábitos más saludables.
- Establecer y valorar las relaciones entre el medio natural y las actividades humanas.
- Acercar al ciudadano urbano una actividad considerada más rural.



- Hiri-inguruneko herritarra landa-jardueretara hurbiltzea.
- Erkidegoaren ideia indartzea, bizikidetza eta solidaritatea sustatuz.
- Belaunaldien arteko harremanak eta elkartrukea sustatzea.
- Baratzeen heziketa eta jolas-izaera indartzea.
- Sortutako hondakin-kopurua murriztea.

#### **4.- 3/1998 Legeko I A Eranskinean xedatutako kasuen araberako azterketa**

Plan bereziak erasandako lursaila ez dago Natura 2000 Sareko espacio batean kokatuta, eta ez du sare horretako espacio batean zuzenean ala zeharka inpaktu nabarmenik sortzen. Halaber, ez dago kokatuta abenduaren 13ko 42/2007 Legeak, Natura Ondarea eta Biodibertsitatearenak, 29. artikuluan xedatutako espacio natural babestuek erasandako eremuren batean, ezta ekainaren 30eko 16/1994 Legeak, Euskal Herriko Natura Babestekoak, 13. artikuluan xedatutako eremu babestuetan ere. Horrez gain, ez dago arestian aipatutako 42/2007 Legeko 49. artikuluan xedatutako nazioarteko tresna babestutako eremuren batean kokatuta.

Plan berezitik eratorritako proiektu posibleei dagokienez, horiei ingurumen-inpaktuaren gaineko ebaluazioa egin behar ote zaien zehazteko orduan, arestian esan den moduan, plan honen asmoa da soilik herri baratzeen kokapena erraztea. Astigarragako Hiri Antolaketa Plan Orokorrak, 1.1.2. artikuluan honela definitzen ditu herri baratzeak: "*Baratzeak, gehienetan herriguneetako aldirietan kokatuta egoten dira, sail txikitán bereizita egon ohi dira, eta azpiegitura komun jakin batzuk dituzte. Baratze horiek herriguneko herritarrentzako aisialdi-jarduera gisa daude pentsatuta. Horien kudeaketa eta jabetza publikoa edo pribatua izan daiteke.*". Hautatutako lursaila dagoeneko baratze gisa erabiltzen da, eta beraz, ez da lur-mugimendurik egin behar, lursailean ez da egokitzapen handirik egin behar bertan lan ahal izateko; laburbilduz, lursaila ustiapan-unitate txikietan banatuko da, eta etxola txiki batzuk edo eraikin nagusi bat eraikiko da bertan tresnak gordetzeko eta zerbitzu komunak eskaintzeko, besteak beste, armairuak eta biltegia. Gainera, inguruan lurzoru hiritartua dagoenez, inguruan aparkatzea erraza izango da, eta beharrezkoa izanez gero, erraza izango da konexio bat egitea udalerriko edateko uraren sarera eta hondakin-uren sarera. Azkenik, lursaila ez dago kokatuta jabari hidraulikoa publiko batean ezta itsas eta lehorreko jabari publikoan ere.

Arestian aipatutako guztia eta erasandako lursailaren tamaina osoa ( $2.400 \text{ m}^2$ ) kontuan hartuta, plan berezitik ondorioztatzen den jarduerei ingurumeneko inpaktu-ebaluaketa banakaturik egin behar ez zaiela

- Reforzar la idea de comunidad, fomentando la convivencia y la solidaridad.
- Promover las relaciones y el intercambio intergeneracional.
- Potenciar el carácter educativo y lúdico de los huertos.
- Reducir la cantidad de residuos generados.

#### **4.- Análisis en base a los supuestos recogidos en el anexo I A de la Ley 3/1998**

La parcela afectada por el plan especial no está enclavada, ni afecta directa o indirectamente de forma apreciable, a un espacio de la Red Natura 2000, ni está situada en un área afectada por las categorías de espacios naturales protegidos establecidos en el artículo 29 de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, de Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, ni en el artículo 13 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de conservación de la Naturaleza del País Vasco. Tampoco está en un área protegida por los instrumentos internacionales contemplados en el artículo 49 de la Ley 42/2007 anteriormente citada.

Por lo que se refiere a los posibles proyectos derivados del plan especial que deberían ser sometidos a evaluación de impacto ambiental, como ya se ha dicho en el apartado anterior, este plan pretende únicamente facilitar la ubicación de huertas de ocio. En el PGOU de Astigarraga, en su artículo 1.1.2, se definen las huertas de ocio como: "Los complejos hortícolas generalmente localizados en el extrarradio de los núcleos urbanos, divididos en parcelas de pequeñas dimensiones y con una serie de infraestructuras comunes. Estos complejos son básicamente concebidos como una forma de recreo de la población urbana. Su gestión y propiedad puede ser pública o privada". La parcela escogida ya se trabaja actualmente como huerta por lo que, no serán necesarios movimientos de tierra ni grandes acondicionamientos del terreno para permitir su cultivo, y, simplemente, se producirá la división de la parcela en pequeñas unidades de explotación y la construcción de pequeñas chabolas para aperos y/o de un edificio de servicios comunes para taquillas, almacén, etc. Además, al estar rodeada de suelo ya urbanizado, éste podrá proveer las necesidades de aparcamiento o hará fácil, si fuera necesario, la conexión con las redes de agua potable y residuales del municipio. Finalmente, la parcela no se encuentra en zona de dominio público hidráulico ni de dominio público marítimo terrestre.

En vista de lo anterior y del tamaño total de la parcela afectada ( $2.400 \text{ m}^2$ ), se considera que ninguna actuación de las que emanen del plan especial deberá ser sometida a evaluación individualizada de impacto



jotzen da, eta beraz, 3/1998 Legeko I A Eranskinean xedatutako kasuen arabera, ez dela inpaktu nabarmenik sortuko ingurumenean.

### **5.- 211/2012 Dekretuko III. eranskineko irizpideen araberako azterketa**

Proiektuari ingurumen-ebaluazio estrategikoa egitea beharrezko den ala ez erabakitzeko azterketa osatu ahal izateko, jarraian plan bereziaren ezaugarriak, inpaktuak, eta ziur asko erasango den eremuaren balioa eta hauskortasuna aztertzen dira, betiere 211/2012 Dekretuko III. Eranskinean xedatutako irizpideen arabera.

#### **5.1.- Plan bereziaren ezaugarriak**

Plan berezi honek erasandako eremuaren antolaketa xehatua egingo du, eta beraz, ez da maila apalagoko planik garatuko. Dokumentazioan berariaz hori aipatzen ez den arren, proposatutako erabilera eta eremuaren ezaugarriak kontuan hartuta, ziur asko plan horren aurreikuspenak zuzenean egikarituko dira, proiektu osagarri garrantzitsuen beharrik gabe. Ondorioz, esan daiteke plan berezi horrek ezartzen duen esparruak, lursailean gara daitezkeen erabilerak definitzeaz gain, bertan garatuko diren jardueren baldintzak ere ezarriko dituela.

Plan horrek ez du zerikusirik ingurumen-arazo aipagarriekin, eta ez da beharrezkoa ingurumen-esparruko erkidego-mailako edo herrialde-mailako legeria aplikatzeko orduan. Hala ere, plan horren helburuak betetzen badira, baratze horien etorkizuneko erabiltzaileak nekazaritza ekologikoari buruz eta oro har ingurumena babesteko laborantza-jardunbide egokiei buruz kontzientziatu daitezke, era horretan, bertako jakien eta bertako ekoizpenaren inguruko balorazioa areagotuz, eta beraz, kontsumo-eredu iraunkorragoak sustatuz. Ondorioz, esan daiteke beharrezko dela ingurumen-alderdiak xedean integratzeko, bereziki garapen iraunkorra sustatzeko orduan.

Laburbilduz, plan berezia jardueraren kokapena eta neurria zehazteko plangintza-esparru garrantzitsuena izan arren (III. eranskineko 1.a atala), eta garapen jasangarria sustatzearren, ingurumen-gogoetak integratzeko ere bereziki egokia izan arren (III. eranskineko 1.c atala), ez ditu III. eranskineko 1. ataleko beste irizpideak betetzen. Hori dela-eta, printzipioz, eta III. eranskineko 2. ataleko azterketa egin gabe, esan daiteke ingurumenean ez duela inpaktu nabarmenik izango.

ambiental por lo que, en base a los supuestos establecidos en el Anexo I A de la Ley 3/1998, no se producirían efectos significativos sobre el medio ambiente.

### **5.- Análisis en base a los criterios del anexo III del Decreto 211/2012**

De cara a completar el análisis sobre la necesidad o no de someterlo a evaluación ambiental estratégica, se analizan a continuación las características del plan especial, de sus efectos y del valor y vulnerabilidad del área probablemente afectada, según los criterios establecidos al respecto en el Anexo III del Decreto 211/2012.

#### **5.1.- Características del plan especial**

El plan especial llevará a cabo la ordenación pormenorizada de su ámbito de afectación, por lo que no se desarrollará por otros planes de nivel inferior. Aunque no se dice específicamente en la documentación, dado el uso que se plantea y las características del ámbito, es muy probable que las previsiones de dicho plan se ejecuten directamente, sin necesidad de proyectos adicionales relevantes. En consecuencia, se podría afirmar que este plan especial constituirá un marco que no solo definirán los usos que se pueden desarrollar en la parcela sino las condiciones que regirán el funcionamiento de las actividades a desarrollar en la misma.

El plan no está relacionado con problemas medioambientales significativos ni es pertinente para la implantación de legislación comunitaria o nacional en materia de medio ambiente. Sin embargo, si sus objetivos se cumplen, puede concienciar a los futuros usuarios de estas huertas sobre la importancia de la agricultura ecológica y, en general, de las buenas prácticas ambientales del cultivo para la protección del medio ambiente, así como incrementar la valoración del uso de alimentos autóctonos y de producción cercana, favoreciendo, por tanto, modelos de consumo más sostenibles. En consecuencia, se puede decir que es pertinente para la integración de aspectos medioambientales con el objeto, en particular, de promover el desarrollo sostenible.

En resumen, se considera que, aunque el plan especial se configura como el marco de planificación más influyente para establecer la ubicación y las dimensiones de la actividad (apartado 1.a del anexo III), y para la integración de consideraciones ambientales que promuevan el desarrollo sostenible (apartado 1.c del anexo III), no cumple los otros criterios incluidos en el apartado 1 del Anexo III, por lo que, en principio y a falta del análisis del apartado 2 del anexo III, podría no tener efectos significativos sobre el medio ambiente.



## 5.2.- Inpaktuen eta ziur asko erasango den eremuaren ezaugarriak.

Plan bereziko esparrua baratze gisa erabiltzen da gaur egun, hirigunetik gertu, hain zuzen ere, hilerriaren ondoan eta bizioki-eremuetatik gertu egon arren.

III. motako nekazaritza-lur gisa sailkatutako eremuuan dago kokatuta; hau da, laborantza iraunkorreko ustiaketa-sistemekin edo beste edozein sistemarekin landu daitezke, eta Nekazaritza eta basorako Lurraldearen Arloko Planaren arabera, balio estrategiko handiko lurzorua da. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila oso apala du lursailak.

Fauna-erkidegoei dagokienez, zelaietako eta lur landuetako berezko espezieak aurki daitezke, baita landa-eremu eta eremu antropizatuakoak ere. Ferrasaguzar mediterraneoaren intereseko eremu baten barne dago kokatuta lursaila, baina espezie hori ez da erasango, hain zuzen ere herri-baratzeen erabilera-mota dela-eta.

Erasandako lursailean ez dago ibai edo errekarik.

Azkenik, pertzepziozko inguruneari dagokionez, nekazaritza-paisaia da, bertan, larreak eta labore atlantikoak dira nagusi ibai-jabarrian.

Herri-baratzeak ezartzeak sortuko dituen inpaktuei dagokionez, ez dira oso nabariak izango, alde batetik, erasandako azalera txikia delako eta eremu hiritartuetatik gertu kokatuta egoteaz gain, egia esan, orain arte garatu den nekazaritza-jarduerari jarraipena emango baitzaio, jarduera hori modu ezberdinean kudeatuko den arren. Hori guztia dela-eta, erabilera berri horretarako ez da eraldaketa handirik egin beharko. Aurkeztutako dokumentazioan ez dira zehazten ezarriko diren antolaketa-irizpideak —zenbat lursail txikitan banatuko den, egitura txikiren bat eraikiko ote den zerbitzu komunetarako eta abar—. Hala ere, eraiki daitezkeen azpiegiturako materialak aukeratzeko orduan, gutxieneko irizpide estetiko batzuk errespetatzen diren heinean, esaterako, lursailak mugatzeko hesiak eraikitzean, eta erabiltzaileentzat funtzionamendu-arau batzuk ezartzen badira, era horretan, plan berezian zehaztutako ingurumen-jardunbide egokiak sustatzeko, ez da uste inpaktu nabarik izango duenik ez paisaian ezta inguruneko beste alderdietan.

Laburbilduz, inpaktuen eta plan bereziak erasandako eremuaren ezaugarriak aztertu ondoren (211/2012

## 5.2.- Características de los efectos y del área probablemente afectada.

El ámbito del plan especial se trabaja en la actualidad como huerta, aunque se encuentra en un entorno próximo a la zona urbana, contiguo al cementerio y zonas residenciales.

Se localiza en terrenos clasificados agrológicamente como de clase III, es decir en suelos que pueden cultivarse bajo sistemas de explotación de laboreo permanente o cualquier otro, y que, según el PTS Agroforestal son suelos de alto valor estratégico. El terreno presenta una vulnerabilidad muy baja a la contaminación de acuíferos.

En lo que respecta a las comunidades faunísticas, se pueden localizar especies propias de los prados y cultivos así como de las zonas antropizadas y rurales. La zona se encuentra dentro de un área de interés para el marjal mediterráneo de herradura pero la misma no se verá afectada por la presencia de las huertas de ocio por el tipo de uso del que se trata.

No hay cursos de agua en la parcela afectada.

Por último, atendiendo al medio perceptual, la zona se caracteriza por un paisaje agrario con dominio de prados y cultivos atlánticos en dominio fluvial.

En cuanto a los impactos que producirá el asentamiento de huertas de ocio, se considera que no serán especialmente relevantes, no solo por la pequeña superficie afectada y su proximidad a zonas ya urbanizadas sino, porque, en realidad, se va a producir una continuidad de la actividad de horticultura hasta ahora existente aunque ésta se gestione de forma diferente, por lo que tampoco van a ser necesarias grandes transformaciones del entorno para adaptarlo a este uso. En la documentación presentada no se especifican los criterios de ordenación que se establecerán —número de parcelas individuales que se distinguirán, si se levantarán alguna pequeña estructura para servicios comunes como almacén, etc.—. Sin embargo, siempre que se respeten unos mínimos criterios estéticos en los materiales utilizados para las infraestructuras que se puedan levantar, por ejemplo, para las cercas de delimitación de parcelas, y se establezcan ciertas normas de funcionamiento para los usuarios a fin de conseguir ese objetivo de promover buenas prácticas ambientales de cultivo que se ha planteado el plan especial, no se considera que se puedan producir efectos relevantes ni sobre el paisaje ni sobre otros aspectos del entorno.

En definitiva, el análisis de las características de los impactos y del área afectada por el plan especial



Dekretuko III. eranskinetako 2. atalaren arabera), ondorioztatu daiteke plan berezia martxan jartzeak ez duela inpaktu nabarmenik sortuko ingurumenean.

Beraz, 4.1 atalean adierazitako eta 4.2 atalean zehaztutako ondorioak kontuan hartuta, ondorioztatzen da plan bereziak ez dituela 211/2012 Dekretuko III eranskinetako irizpide gehienak betetzen.

Beraz, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, planen eta programen ingurumenaren gaineko inpaktuaren ebaluazio estrategikoa egiteko procedura arautzen duenak, 5.3 artikulan xedatutakoari jarraiki, eta apirilaren 2ko 16/2012 Foru Dekretuak 7.6.b) artikulan xedatutakoaren arabera, nik, Ingurumen eta Obra Hidraulikoen Zuzendari Nagusiak

## EBAZTEN DUT

**Lehenengoa.-** Astigarragako HEA 12 Mendaundi-Anibar eremuan herri-baratzek ezartzeko plan bereziari ingurumen-ebaluazio estrategikorik ez egitea, 3/1998 Legeko I A eranskinetako kasuen arabera egindako azterketaren ostean, eta 211/2012 Dekretuko III. eranskinetako irizpideak aplikatu ondoren, plan berezi horren egikaritzeak ingurumen-inpaktu nabarmenik sortuko ez duela ondorioztatu baita.

**Bigarrena.-** Plan bereziaren garapenean, bertan zehaztutako helburuak lortzen laguntzeko, eta ekimena paisaian behar bezala integratzen laguntzeko, interesgarria izango litzateke baratze horiek kudeatzen dituen entitateak:

1.- Erabilera komun batzuk eskaintza: besteak beste, materialak eta tresnak gordetzen biltegia, ureztaketarako ur-hornidura, lursailen banaketa, baratze ekologikoa edukitzeko jardunbideei buruzko aholkularitza eta prestakuntza, hondakinak jasotzeko puntuak eta abar.

2.- Baratzetako etorkizuneko erabiltzaileei erabilera-arau batzuk jartzea, zehazki honako alderdien inguruan:

- Ureztatze-metodoak. Euri-ura aprobetxatzen dutenak sustatuko dira, eta oro har, ura xahutzen ez dutenak.
- Hondakinen kudeaketa egokia egin eta nekazaritza-lanetan sortutako hondakin organikoen autokonpostatzea sustatzeko.
- Gaixotasun fitosanitarioei aurre hartu eta horiei tratamendua emateko orduan, nekazaritza ekologikoko metodoak erabiltzeko.

(según el apartado 2 del anexo III del Decreto 211/2012), lleva a determinar que la puesta en marcha del plan especial no conllevará efectos significativos sobre el medio ambiente.

Por tanto, teniendo en cuenta lo expuesto en el apartado 4.1 anterior y las conclusiones alcanzadas en el apartado 4.2, se concluye que el plan especial no cumple la mayor parte de los criterios establecidos en el anexo III del Decreto 211/2012.

En consecuencia, según lo dispuesto en el artículo 5.3 del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas y, en virtud de lo previsto en el artículo 7.6.b) del Decreto Foral 16/2012, de 2 de abril, esta Directora General de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

## RESUELVE

**Primero.-** No someter al plan especial para la implantación en Astigarraga de huertas de ocio en la AIU 12 Mendaundi-Anibar a evaluación ambiental estratégica, ya que, de acuerdo con el análisis realizado teniendo en cuenta los supuestos recogidos en anexo I A de la Ley 3/1998, y aplicando los criterios establecidos en el anexo III del Decreto 211/2012, se concluye que la ejecución del plan especial no va a producir efectos ambientales relevantes o significativos.

**Segundo.-** En el desarrollo del plan especial, y a fin de favorecer el cumplimiento de los objetivos que se ha marcado y conseguir una adecuada integración paisajística de la iniciativa sería interesante que la entidad gestora de estas huertas:

1.- Proveyera de ciertos usos comunes como almacén de materiales y herramientas, suministro de agua para riego, separación de parcelas, labores de asesoramiento y formación sobre prácticas de huerto ecológico, puntos para recogida de residuos, etc.

2.- Estableciera para los futuros usuarios de las huertas algunas normas de utilización sobre ciertos aspectos tales como:

- Métodos de riego. Se potenciarán aquellos aprovechen el agua de lluvia y que, en general, no produzcan derroche de agua.
- Correcta gestión de los residuos y promoción del autocompostaje de los restos orgánicos producidos en los trabajos hortícolas.
- Prevención y tratamiento de enfermedades fitosanitarias por medio de métodos de agricultura ecológica.



## Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketa Departamentua  
Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

- Ongarri naturalak erabiltzeko.
- Bertako barazki-barrietateak lantzea, edo gutxienez gure ingurunera ongi egokitutako espezie ez-exotikoak lantzea.
- Esleitutako lursailetan paisaian inpaktuia izan dezaketen elementuak, esaterako, etxolak edo bestelako eraikinak, jatorrizkoak ez diren hesiak ezarri eta baratzearekin zerikusirik ez duten objektuak gordetzeko debekua ezartzea.
- Utilización de abonos naturales.
- Cultivo de variedades hortícolas autóctonas o por lo menos de especies bien adaptadas a nuestro entorno y no exóticas.
- Prohibición de instalar elementos en la parcela adjudicada que puedan contribuir a un impacto paisajístico como chabolas u otro tipo de edificaciones, cerramientos diferentes a los ya instalados o almacenar objetos que no tengan que ver con la finalidad de huerto, etc.

**INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO ZUZENDARI NAGUSIA,  
LA DIRECTORA GENERAL DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS,**

Izp./Fdo.: Ainhoa Iraola Apaolaza

**Jakinarazia / Comunicado a:**

**ASTIGARRAGAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA  
INGURUMENEKO ZERBITZUA / SERVICIO DE MEDIO AMBIENTE**